

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalbatzaren 2025eko martxoaren 20ko erabakiaren laburpena. horren bidez, ikasleen gurasoen elkarreentzako dirulaguntzen 2025erako deialdia egiten da

BDNS (Identif.): 823681.

Diru-laguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/823681>).

Lehenengoa. Onuradunak

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarreak (IGE) izango dira deialdi honen onuradunak. Erakunde onuradunek derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeekin lotuta egon behar dute.

Laguntza jaso ahal izateko, gurasoen elkarreak Zuiako Udalari zerga-arloan ordaindu beharrekoak, baita Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ere, ordainduta izan beharko ditu eta helburu bereko beste diru-laguntza edo laguntzarik jaso duen udaletxeari jakinarazi.

Bigarrena. Xedea

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzen deialdiaren helburua da haien esku-hartzea indartzea eta elkarrekin antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta opor jarduerak sortutako gastuen zati bat ordaintzea, eta baita ikasleen behar psikopedagogikoen gastu osoa ordaintzea ere. Izan ere, jarduera horiek eragin garrantzitsua dute ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan, eta gurasoen elkarrekin eta sistemaren beraren sostengurik gabe ezin litezke bideratu.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2025eko martxoaren 20an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoei dagozkien gastu hauek Zuiako Udalaren 2024ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko ondorengo partiden kargura egingo dira: 326.481.000 (18.000,00 euro) eta 326.481.060 (6.000,00 euro).

Laguntza psikopedagogikoari dagozkion gastuak Zuiako Udalaren 2024ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 326.481.070 partidaren kargura egingo dira. Gastu hau 35.000,00 eurokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Urteko ekaineko azken egun baliadunera.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2025eko martxoaren 28a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA